Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Azkaine



Aurkibidea

Udalerria: Azkaine

Sarrera



Azkaine Lapurdiko mendebaldean dagoen barnealdeko udalerria da, Lapurdi Itsasegi eskualdean kokaturik dagoena. Larrun mendiak Azkaine ipar-mendebaldean dauka, eta herria tontorrera igotzeko abiapuntua da. Urdazuri ibaiak udalerria gurutzatzen du eta bertara isurtzen dira Ibardin, Arraio, Etxeberri eta Galardiko erreken urak. Auzoei dagokienez, hauek dira nagusiak: Morzelai, Herri, Mendixka, Aldagarai, Larrun eta Olhagaraya.

- **Biztanleak**: 4.079
- **Euskaldunak**: %8,49

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **12**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **94**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **92**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IKER taldea
- Lierni Elortzaren fondoa
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Maixan Albistur Agirre *Maizan tipi* (1933)



Azkaingo alaba da Maixan. Lapurdiko kostaldeko herrian iragan zituen bere gaztaroko urteak, funtsean inoiz ez du sorlekuarekiko lotura moztu eta askotan itzultzen da bere haur denborako herrirra. Gazte gaztetik, euskatzale sutsu honek parte hartu du herriko bizitzan, elizan, antzerkian, kantuz arituz... Irrati programa batean ere parte hartu zuen. Bere senar sukaldaria jarraitu zuen urte askotan izan zituen lanpostuetan. Azkenik Lehuntzen hartu zuten berengain ostatu bat. Bertan jatera eta edatera ematen zuten, eta Aturri ibaiaren bazter horiek enpresaz beteta zeudenean jende anitz biltzen zen 'Bar du Port' delako ostatuan.

Mañaña Etxeberria Laduxe (1929)



Haurtzaro zaila izan du, etxean denak ezin haziz, auzoko baserri batera igorri baitzuten neskato, edo "esklabo", berak dioen bezala. Txiki-txikia zela, hainbat lan egin behar izaten zituen, nekeak, eskola huts eginez. Bigarren Mundu Gerraz ere oroitzen da, Getarin (Lapurdi) baitzen neskato. Ezkonduz geroz, Erasoa kanpainako etxekanderea da, eta laborantzaz bizi izan da.

ANE-004 Hizlari ezezaguna

ANE-007 Hizlari ezezaguna (1962)

ANE-008 Hizlari ezezaguna (1929)

Inazio Inda (1932-2020)



Lakarra Baitan sortua, txistera fabrikatzaile familia batean. Haur denborakoetan, pilotaz eta alemanez gogoratzen zen, hauek bereziki bortitzak izan baitziren Azkainen. Laborantzan aritu zen luzaz, aitarekin argintzan hasi arte. Angula biltzen eta kontrabandoan ere ari izan zen. Axafla Baita jatetxeko nagusia izan zen, eta lehengo otorduez, besta giroan, hitz egin zigun, besteak beste.

Thérèse Iratzoki (1935)



Thérèse Saint Pierre Luro, ezkonduz geroztik Thérèse Iratzoki. Baionan jaioa, Milafrangan bizi izan zen Azkainera ezkondu zen arte. Aita baionarra zuen, laboraria, eta ama doneztebearra, etxeko anderea. Zazpi senidetan lehena zen Thérèse. Dendaria (jostuna) izan da ogibidez. Baratzegintzan ere aritzen da. 24 urterekin ezkondu zen, Adrien Iratzoki zurginarekin. Lau seme-alaba izan zituzten (2 alaba eta 2 seme; Bernadette alaba elkarrizketan egon zen).

Adrien Iratzoki Jauregi *Zainzuri* (1931-2023)



Saran jaioa, Azkainen bizi izan da umetatik. Aita saratarra zuen, gidaria, eta ama halsuarra, etxeko anderea. Sei senidetan bigarrena da Adrien. Zurgina da ogibidez eta kantuzalea afizioz. Thérèse Saint Pierre milafrangatarrarekin ezkondu zen, Azkainera. Lau seme-alaba izan zituzten (2 alaba eta 2 seme; Bernadette alaba ere elkarrizketan izan zen).

Pierre Oyhanto (1925-2022)



Azkainen sortua 1925ean. Lau senidetan bigarrena. Guraso biak azkaindarrak zituen. Ofizio asko egina gaztetan, lur berdintze edo "terrazamendu" lanak bereziki. Eskupilota eta kantua ditu zaletasun. Michelle alaba ere elkarrizketan egon zen.

Suzanne Mireille Oyhanto (1927)



Gurasoak azkaindarrak zituen. 4 anai-arreba izan ziren. Gazte-gazte neskato izana Azkainen. Ondotik Parisen atari-zaina edo “konzierja” (portera) 17 urtez eta “Traiteur” (catering) laguntzailea. Senarra Parisen ezagutu zuen. 1987an berriz Parisetik Azkainera itzulia. Azken urteetan itsu bilakatu eta orain liburuak audioz entzutea gustuko du.



Graxi Zolorzano (1949)

Battitt Zozaia (1927-2015)



Ganixto Baita etxean sortua, eta bertan bizi izandakoa. Etxeko pareta bat pilota plaza zen aspaldian. Gaur egun, errepidea pasatzen da lehengo kantxan barna. AHTren mehatxua ere hor dago oraindik. Baserri xumea zen lehen. Apartamenduak egitera behartuak izan ziren, laborantzako nekeziari aurre egiteko. Bigarren Mundu Gerra denboran, Alemaniako armadako ofizial batek lo egiten zuen Ganixto Baitan. Hala ere, gaueko lanera joaten zen Battitt, gazte-gaztea zela. Bateria jolea ere izana da. "Baina hori ez da musika", zioen Battittek.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aurkezpena (ANE-001/002)

Janbattitt Zozaia, Battitt deitua. 1927ko otsailaren 5ean Ganixtobaita etxe horretan berean sortua. Etxearen harrizko leiho atalburu batean idatzia da « la maison d’Oihanburua fait Jean Larralde 1783 » - ("Oihanburua etxea, Jean Larraldek egina, 1783"). Alde horretan pilota plaza bat bazen.

2. Aurkezpena (segida): etxea (ANE-001/004)

Ganixtobaita etxearen argazki xaharra erakusten du. Sahetsean, ez zen orai den bidea pasatzen. Bere aita zenak etxea erosi zuelarik egoera txarrean zen eta arraberritu zuen.

3. Mugaren alde batean zer erosten zuten eta nola pasatzen zuten (ANE-009/002)

Bentetan Larrunen, Dantxarian zer erosten zuten. Baionan saltzen zituen aitak txikoria, txokolatea (urtzen zenean gustura, hori ezin zenez saldu, haientzat izaten zelako). Estofa (oihala) ere bai, zeta Bordelen saltzen zen. Ezin mugituz, gerrian lodi bilduta pasatzen baitzuten.

4. Behiak etxean hazi, haragia idortu eta saldu (ANE-009/004)

Gerra denboran, astean behi bat edo bi hiltzen zituzten etxean, isilka. "Buxerak" (harakina) hiltzen zituen. Aezkoa aldetik ekartzen zituzten oinez behiak. Puskatu eta selauruan ematen zituzten idortzen, gero saltzeko, hoteletara bereziki.

5. Gaztetako bestak: ihauteriak (ANE-009/007)

Ihauterietan etxez etxe, xingar eta arrautza biltzen, akordeoi musika eta astoa lagun. Antzerkiak egiten zituzten jaun erretorea buru zutelarik.

6. Omiasainduz, santu guztien egunean, kuiak jendea izuarazteko (ANE-009/008)

Kuia hustu, aho handia eta hortzak agerian eta bujia (kandela) barnean. Blantxiseriko (jantziak garbitzeko lantokia) langileei lanetik ateratzerakoan bidean jartzen zizkieten.

7. Olentzeroren kanta kantatzen du (ANE-009/011)

Olentzeroren kanta kantatzen du.

8. Pilotan espartinak zulatu eta ortutsik (ANE-009/012)

Espartinak zulatu eta ortutsik, odoletan bukatu. Pilotak eguberriko opari, "Papa Noel"en "presenta" (oparia).

9. Buhameen mintzairan pasartetxo bat (ANE-009/015)

Buhameen mintzairan esaldi parea Adrienek eta alaba Bernadettek.

10. Bestak: prestakuntza lanak (ANE-009/017)

Teatroa egiteko tokia prestatzeko aulkiak biltzea astoarekin. Konfetiaz "poxetak" (poltsikoak) betetzen zituzten.

11. Zurgintzaz (ANE-009/019)

Zurgintzaz dena gustuko; egur zaharrekin aritzea nahiago.

12. Euskaraz ari ziren beti txikitan (ANE-009/022)

Beti euskaraz mintzatzen ziren etxean, besterik ez zekiten.

13. Euskara: toka eta noka (ANE-009/023)

Toka eta noka nori, noiz, norekin egiten zuten kontatzen du. Familiako bakoitzarekiko ohiturak. Baita lagun artekoak ere. Seme-alabekin nola aritzen den ere aipatzen du.

14. Herritik kanpo bentetara (ANE-009/025)

Bentetara joaten zirenean han egiten zituzten salerosketak, tratuak, mokadutxoa.

15. Ateraldia ezkontzaz (ANE-009/026)

“Andrea eta biak noiz ezkondu ginen? egun berean”

16. "Euskaldun bat zen itsu eta bertsolari" kanta (ANE-009/035)

“Euskaldun bat zen itsu eta bertsolari” bertso sortatik pare bat kantatzen ditu.

17. Gurasoak euskaldunak; seme-alabak frantsesez beti (ANE-010/002)

Gurasoak euskaldunak izanik ere, frantsesez hitz egiten zuten seme-alabek eskolan, etxean... Amak asko sufritu zuen frantsesa ez jakiteagatik eta gustura zen “doike” frantsesez entzunik.

18. Ikasketak herriko eskolan, dendari (jostun) ikasi arte (ANE-010/003)

Ikasketak serorekin (mojekin) hasi zituen eta “matanta” (izeba) batekin ibili zen ondoren. Ez zen atsegina hura. Ondoren, lantegi batean dendari (jostun) ikasi zuen.

19. Jostun etxez etxe; lanaren prozesua eta zehaztasunak (ANE-010/004)

Non aritzen zen etxez etxe josten. Han pasatzen zuen astebete etxean bertan josten edota jantziak “arrimatzen” (konponketak egiten), “azpilzunak” (azpildura) eta “peazuak” (adabakia) ematen. Bere josteko makina erosi zuen eta josteko prozesua kontatzen du: patroiak egin, “kroxetakin” (orratza) eman, “fofilatu” (albaindu), aizturrekin moztu... Oihal mota ezberdinak erabiliz. Ezkondu ondoren ere segitu zuen, etxekoentzat eta herrikoentzat.

20. Barazkiak, arrautzak eta arraina Baionako merkatuan saltzen zituen (ANE-010/006)

Barazkiak prestatu, lekak bereizi eta Baionako merkatura nola joaten zen barazkiz kargatua bizikletaz. Zubian jartzen zen Baionan. Aitak arrantzatutako arraina ere saltzen zuen. Nola eta zer arrantzatzen zuten; arrain mota ezberdin asko. Etxez etxe ere saltzen zuen. Ederrenak etxeko jabeari, bordariak (maizterrak) baitziren.

21. Trikotatzea gustuko (ANE-010/008)

Etxekoentzat trikotatzen (puntua egiten) du. Gustuko du neguan.

22. Etxe inguruko lanak: baratzea, loreak, usoak, oiloak... (ANE-010/009)

Baratzeko lanak: etxe ilar, tipula.... Usoak hazten ditu. Txitan zen oiloa azeriak eraman zionekoa.

23. Sukalde kontuak; oilo, oilar, uso prestaketa (ANE-010/010)

Sukaldean aritzea gustuko du, “coq au vin” (oilarra ardoarekin) edo oiloa, uso ttikiak labean... Hil, bipildu (lumatu) eta prestatu. Zopa eta saltsak prestatzea gustuko du, baina "pastizeria" (gozogintza) ez.

24. Zerri lanak: odolkia nola egin, “hura”, pateak, gantxingorra... (ANE-010/011)

Zerri lanak kontatzen ditu. Odolkia nola egin, “Paté de Tête” (buruko haragia), pateak, gantxigorra, lukainka, "almia" (hirugiharra), xingarra (urdaiazpikoa), konfitak. Andoila: zer den azaltzen du. Haragi parte ezberdinak eta “legumak” (barazkiak) nahasirik egiten dituzte denak.

25. Txikitako jolasak: dantza, kanikak, "kroke"a... (ANE-010/015)

Txikitako jolasak: dantza, kanikak, “kroke”a, soka saltoa, “le xapio” (antxu txurraren antzekoa).

26. Eskola kontuak (ANE-010/016)

Eskolan neskak eta mutilak elkarrekin. Beti frantsesez. Gogoan dituen bi seroren (mojen) aipamena.

27. Bere ezkontza eguna kontatzen du (ANE-010/017)

1958an ezkondu zen. Milafrangan aperitifa eta etxean festa. Arroparen berri ematen du.

28. Etxebizitza erreka ondoan (ANE-010/019)

Erreka ondoan bizi ziren eta barkua zuten garraio nagusi. Horri buruzko pasarteak.

29. Urik eta argindarrik ez etxean (ANE-010/020)

Egunero urketa (ur bila) barkuz eta oinez.

30. Kanpaina (baserri) lanak eta festa uztartuz (ANE-010/021)

Baserri lanak aipatzen ditu: belar lana, arto zuritzea... Eta lanekin lotutako otordu onak, festa eta kantu giroa ere bai.

31. Senarrarekin eta haurrekin euskaraz berriz (ANE-010/023)

Senarrarekin elkartuz geroz, euskaraz egin izan dute haien artean. Seme-alabek ikas zezatela nahi izan zuten eta baita ongi lortu ere.

32. Etxean uholdeak bizi izan zituztenekoak (ANE-010/024)

Jaiotetxean eta ezkonduz geroztik ere uholdeak bizi izan ditu. Baxerak hautsiak; josteko maxina hupatu zuten.

33. Antzerkia biziki maite zuen (ANE-010/025)

Antzerkia eskolan, frantses obrak.

34. Azkaingo familia zaharrenekoa (ANE-011/002)

Azkainen sortua. Azkaingo familia zaharrena omen.

35. Zuka beti (ANE-011/004)

Arrebarekin eta senideekin beti zuka. Frantsesez "to"ka bai, baina euskaraz beti zuka.

36. Ezkontzaz ateraldi berezia (ANE-011/006)

Norekin ezkondua den galdetuta, “andrearekin”.

37. Ateraldi berezia: "posible den arte segi" (ANE-011/008)

Bizi filosofia: posible den artean segi.

38. Pilotan asko aritua (ANE-011/009)

Pilotan kadete eta senior mailan Frantziako txapeldun izana.

39. Alemanak Azkainen lau urtez (ANE-011/011)

Berak 15 urte zituelarik, alemanak iritsi ziren Azkainera; lau urte pasatu zituzten.

40. Kontrabandoa alemanen garaian (ANE-011/012)

Kontrabandoa alemanen garaian. Zer garraiatzen zuten eta nora. Harrapatu ez zitzaten erabiltzen zituzten trikimailuak.

41. Denean ziren alemanak (ANE-011/014)

Alemanak herrian zireneko oroitzak: “Denetan (herriko hotel eta leku jakinak aipatzen ditu) ziren, baina ez tzar horietaik, tiroa laster zuten haiek ere izitzen ziren”.

42. Lanean hasi zenekoa (ANE-011/016)

12 urtetan lanean. “Patizerian” gozogintzan, farmazian eta osabarekin. "Ttiki-ttikitik nuen ideia kamionakin Azkaingo plazarat ailegatzea”.

43. Maulen armada hasi zuen (ANE-011/017)

Gerlan izana. Mauletik abiatuta.

44. Alemanen garaiko pasarteak (ANE-011/019)

Kanpainetan lanean. Makien laguntzaile. Mendizain. Boluntario joan zen gerlan. Hango postu ezberdinak kontatzen ditu. ”Gerra egin dut tirorik bota gabe”.

45. Gerran Austrian ibili zenekoa (ANE-011/020)

Maiatzaren 8an (“huit mai”), bigarren gerra bukatu zenean, Austrian (“Otrizian”) zen. Jenerala etorri zitzaien; haren txofer (“xofor”) ibili zenekoa. Oroimen onak.

46. Andrea ezagutu zuenekoa (ANE-011/021)

Austriatik (soldadutzatik) itzuli eta segituan “kuxean” (autobusean) andrea ezagutu zuenekoa. Pasadizoa kontatzen du. Lourdesetik omen zetorren gizon bila joanda.

47. Eskola denborako kontuak (ANE-011/022)

Hamabi urte arte eskolan. Kalkuluan ona. Gainerakoak kopiatu.

48. Euskara debekatua; zenbait pasarte (ANE-011/024)

Euskaraz hitz egitea debekatua. Irakasle prestua zuten.

49. Katixima edo dotrina "zertifikatua" (ANE-011/025)

Dotrina edo katixima. "Zertifikatua" lortu zueneko pasartea. Serorak kontra zituen errotik.

50. Eskola ondotik pilotan eta kaniketan (ANE-011/026)

Eskolatik ateratakoan, pilotan aritzen ziren. Espartinetan joaten ziren eskolara, baina pilotan oinutsik aritzen ziren, “irtutsik, gure etxean ez baitzen sosen ondoike”. Kaniketan ere ibiltzen ziren.

51. Ostatuen aipamena (ANE-011/028)

Ostatuetan ibiltzen ziren, batzuetan ezkutuan. Alemanen menean zailago zen, kantuan ezin izaten zuten egin. Halere, moldatzen (“debruiatzen”) ziren.

52. Euskal ezkontzako senargai hautatu zuten (ANE-011/029)

Herriko bestetan dantzan. Donibanen euskal ezkontzan bera izan zen senargaia.

53. Kantuan aritzen zireneko pasarteak (ANE-011/032)

Kantuan norgehiagoka aritzen ziren herri batekoak bestekoen kontra.

54. Kantatzeko bertso hautaketan (ANE-011/034)

14 bertso dituen kanta abesteko prestatzen da.

55. Hainbat bertso (ANE-011/035)

14 bertso dituen kanta. Bertso guztiak buruz kanpatzen ditu.

56. Kantak buruz ikasteko teknika (ANE-011/036)

Kantak buruz ezin ikasi orain; duela hamar urte erraz.

57. Kanta errepikatzea “pekatu” (ANE-011/038)

Hiruzpalau orenen buruan kantaren bat errepikatzen zuenak denentzat edaria (“tornada”) ordaindu behar izaten zuen.

58. Etxeko hizkuntza-ohitura (ANE-011/041)

Etxeko hizkuntza-ohiturei buruz: emaztearekin eta seme alabekin nola aritzen den.

59. Imanolen ´Zure tristura´ kanta (ANE-011/044)

Imanolen `Zure tristura´ kanta kantatzen du.

60. Lagunekin euskaraz kantuan (ANE-011/046)

Euskal kantak kantatzen zituzten batez ere. Lagunak euskaldunak zituen lehen; orain lehengoak hilak dira eta kontuak aldatu dira.

61. `Triste bizi naiz eta´ kanta (ANE-011/048)

`Triste bizi naiz eta´ kanta kantatzen du.

62. `Sorlekua utziz gero´ kanta (ANE-011/050)

`Sorlekua utziz gero´ kanta kantatzen du buruz. “Alutxa” azken aurreko kopla oroitu arte ez du amore ematen.

63. Egungo pilota kontuak (ANE-011/052)

Espainiako telebistan pilota partidak jarraitzen ditu. Bezperako partida eta gustuko dituen pilotariei buruzkoak kontatzen ditu bizi-bizi.

64. Erretoreak inposatutako izena (ANE-012/002)

Aurkezpena. Herriko etxean eta erretoreak ez zioten izen bera eman.

65. Euskara debekatua eskolan (ANE-012/005)

Euskara debekatua eskolan

66. Lanean Parisen (ANE-012/007)

Egindako lanak. Herrian lehenbizi eta “konsierge” (etxezain) Parisen. Ongi pasatu zuten.

67. Euskaraz ahizpen artean Parisen (ANE-012/008)

Euskaraz Parisen ahizparekin aritzen zen, haren senarrak gustuko ez bazuen ere.

68. Lanean Parisen (ANE-012/010)

Pariseko kontuak. Janari saltzaile-prestatzaile enpresa batean lan ezberdinak egin zituen. Anitz maite zuen lan hori.

69. Euskaldun artean Parisen (ANE-012/011)

Parisko beste euskaldunak. Gatazkan haien artean, nor euskaldunago.

70. Pariseko kontuak (ANE-012/012)

Pariseko gazte denborako ateraldi eta lan martxa. Tarteka herrira etortzen zen ama ikustera bereziki.

71. Senarraren lanbideei buruz (ANE-012/013)

Pariesen ezkondu zen. Senarra su-hiltzaile (“pompier”) izan zen 15 urtez; hren gorabeherak. “Convoyer de fond” (segurtasunezko diru-biltzaile) ere aritu zen. Zituzten arriskuez mintzatzen da.

72. Jantziei buruzko ohiturak (ANE-012/015)

Jantziei eta oinetakoei buruzko ohiturak. Espartinak erosi zituenekoa eta ”atsaldetan beztitzen nintzen, taulira (amantala) kendu eta arropa txiki bat”

73. Lanean gizona lagun (ANE-012/016)

Zenbat lanetan gizonak laguntzen zuen

74. Koraletan kantuan aritua (ANE-012/017)

Larrun kanta taldean kantuan aritu da eta elizako koralean ere bai.

75. Kantua gustuko du (ANE-012/019)

Maite du kantatzea, bakarrik aritzen da, beti kantari. Anaiarekin ere bai.

76. Akordeoia jotzeko auzokoari galdezka (ANE-012/021)

Akordeoia gustuko du. Auzokoak jotzen duela eta beretzat jotzeko galdetzen dio.

77. Kontrabandoan gizon eta emazteak (ANE-012/022)

Kontrabando kontuak. Gizon eta emazte aritzen ziren. Estofa (oihala) bilduta ekartzen zuten. Geldituak izan zireneko pasarte bat ere kontatzen du.

78. Kontrabandoak lagun batekin bizitako pasartea (ANE-012/023)

Kontrabandoko kontuak. Lagun batekin joan eta Senpereko auzoan heian euritik babesteko gordeta egon behar izan zutenekoa.

79. Euskaraz beti zuka, behin ere ez toka-noka (ANE-012/024)

Euskaraz etxean baina sekula ez toka-noka. Ez zuen maite. Errespetuagatik edo.

80. Parisen Hazpandar bikote bat toka-noka beti (ANE-012/025)

Parisen zen Hazpandar bikote baten aipamena, beti toka-noka aritzen ziren eta berak ez zuen batere maite

81. Meza segitzen du telebistan (ANE-012/027)

Telebistan meza euskaraz segitzen du, batzutan hobeto ulertzen du “konprenitzen” bestetan baino

82. Euskaraz ulertzen ez dutenekin frantsesez begirunez (ANE-012/029)

Euskara ez zekitenekin bera frantsesez aritzen zen eta euskara ukatzen zuela leporatzen dioten, ez zuela ukatzen, prestuki jokatzen baizik “je ne renie pas, mais je suis polie”,

83. Euskararen transmisioa (ANE-012/030)

Alabei erakutsi zien eta aritzen berak ere ez du ahantzi.

84. Parisen euskaraz ahizparekin (ANE-012/032)

Parisen ahizparekin ari zen euskaraz, isilka batzuetan haren senarrak ez zuelako maite

85. Xuriketa eta urketa joaten zirenekoa (ANE-012/033)

Laneko eta gazte denborako oroitzapenak. Ametsetan “suilarda” (sukalde ondoko tokia gauzak jasotzeko erabilia) ikusten du. Urik ez etxean eta urketa joaten zirenekoa. Xuriketak egitea maite zuen.

86. Azkaingo jantziak garbitzeko lantokia “blanxizeria” (ANE-012/035)

Azkaingo “blanxizeria” (zuriketa lantokia, hoteletarako bereziki) aipatzen du. Bera ez zen sekula han aritu.

87. “Agur, agur ama ona” kanta (ANE-012/038)

“Agur, agur ama ona” kantaren zatitxo bat kantatzen du.

88. Erretorearen bisita (ANE-012/040)

Erretorea etxera etortzen zaio. Hark ere maite du kantatzea. “Besteak baino aintzinexeago joaten da, baina kantatzen du” (umorez kontatzen du)

89. "Gure aita" kantatzen (ANE-012/041)

"Gure aita" kantatzen dute denen artean.

90. Kantuei buruzkoa (ANE-012/043)

“Maitia non zira” kantatzen dute. Soprano zirela kontatzen du.

91. Kantuan familian ikasia (ANE-012/045)

Familiarekin ikasi zuten kantatzen.

92. Familia handia I (ANE-012/047)

Familia handia, elkarrekin 26 haur bizi ziren etxe berean.

93. Familia handia II (ANE-012/049)

Jendeak beraien etxetik pasatzerakoan eskola ote zen galdetzen zuen. Elizako laguntzaile izan zen aitatxi zena. Kantuan ederki aritzen zen hura ere.

94. Aita txoferra (ANE-012/050)

Aitaren ofizioa txofer, Bretainiara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-03

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com